




BETERRIKO ALDIZKARIA



# AIURRI

1996ko urtarrilaren 26a. 29. zenbakia. Dohain banatzen da.

## *Txotx garaia*



### ZENTROA

TABERNA - JATETXEA

☎ 69 04 47 - ZIZURKIL

### BEREZITASUNAK

- EUSKAL SUKALDARITZA
  - ARRAIN ERREAK
  - EGUNEROKO BAZKARIAK
  - JANARI MEXIKARRA
- (Aldez aurretik deituta)*

**ADI LAGUNOK!!**  
Dagoeneko badugu  
SAGARDOA txiritik



# ONDARRETA LEITZARAN HERRI IKASTETXEA

KALE NAGUSIA Z/G ☎ 59 27 56  
ANDOAIN



 **PUBLIKOA**  
 **EUSKALDUNA**  
 **ANIZKORRA**  
 **BERRITZAILEA**

**MATRIKULA EPEA**  
OTSILAREN 1 ETIK 20RA

## PEDRO M<sup>a</sup> OTAÑO HERRI ESKOLA

  
PAGAMUÑO AUZOA Z/G  
☎ 69 14 78  
**ZIZURKIL**



**HERRIAN SUSTRAITUTAKO  
IRAKASKUNTZA EUSKALDUNA**

### **MATRIKULA**

Otsailaren 1etik 20ra bitartean

**Ordutegia:**

Arratsaldez 3etatik - 4.30etara

**Lekua:**

Eskolako zuzendaritzan

1. **AURKIBIDEA.**  
**AIURRITARRAK**  
Joseba Erkizia: "AEK-HABE akordioa"
2. **INKESTA.**  
Eta zuri, zahartzeak kezkatzen al zaitu?
3. **LARRAUL.**  
Argindar horniketa berrituko dute.
- 4-5-6. **ANDOAIN.**  
Ehiza txakur txiki txapelketa.  
J.R. Zubimendik zuzenduriko mintegia.  
Aukeratu dituzte juraduko partaideak.
7. **ASTEASU.**  
Baseri babestuko taberna.
- 8-9. **BILLABONA - AMASA.**  
I. amodiozko gutunen txapelketa.  
Eskola berria Arroa auzoan.
10. **ZIZURKIL.**  
Alterofilia taldea.
11. **BASERRIA.**  
Zizurkilgo Aranburu oilategia.
- 12-13. **ERREPORTAIA.**  
Txotx egin!!
- 14-15. **ELKARRIZKETA.**  
Xabier Berasaluze Leturia panderojolea.
- 16-17. **KIROLA.**  
Andoingo Euskalduna futbol taldea.
18. **ERRETRATU ZAHARRA.**
19. **ZER BERRI? / LEHIAKETA.**
20. **AGENDA**

**Argitaratzailea:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31  
**Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larraul eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Antxiñe Mendizabal. **Maketatzailea:** Iñaki Garmendia.  
**Erredakzioa:** Antxiñe Mendizabal eta Ainhoa Oiarzabal  
**Argazkiak:** Manu Mujika **Komikia:** Iñaki G. Erro.  
**Publizitate arduraduna:** Iñaki Otamendi. **Banaketa arduraduna:** Iñosen Mujika. **Administratzaile-eragilea:** Kepa Sarasola. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). **Filmaketa:** VideoCys, Donostia. **Legordailua:** SS-202/94 ISSN: 1134-0614  
**Tirada:** 3.500 ale.

**OHARRA:** Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



## AEK-HABE akordioa

Urtea amaitzeaz zegoela iritsi zitzaigun berria: elkarrizketa eta negoziazio ugarrien ondoren, bost urterako hitzarmen markoa sinatu dute AEK-k eta HABE-k Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak bultzatuta. Berri ona inondik ere, akordioa urte asko iraun duen komunikaziorik eza, haserrea eta gatazka bete-betean konponbidean jartzera dator eta.



JOSEBA ERKIZIA

Euskaltzaleontzat euskal gizartearen eta kulturaren normalizazio bidean ezinbesteko urratsa da euskararen egoera normalizatzea gizartean. Eta euskararen normalizaziorako giltzarrietako bat, berriz, helduen euskalduntze eta alfabetatzea dugu. Izan ere, euskarak aspaldian frogatua du -frogatu beharrik bazuen- baduela berez behar adina garapen-ahalmen edozein alor eta mailatan hizkuntza bizia, eguneratua eta funtzionala izateko. Han-hemen euskaraz erraztasun eta trebetasunez jarduteko gai diren hiztun ugariak behar ditu, ordea, inoiz gizarte osora zabalduko bada.

AEK ez da, jakina, helduak euskalduntzen eta alfabetatzen diharduen erakunde bakarra. Baina bai hedatuena, nahiz lurraldez (Euskal Herri osoan ditu euskaltegiak) nahiz ikaslez (15.000tik gora), batez ere hiriburuetatik kanpo. Horregatixe, aurrerapausu itzela da hitzarmen hori sinatzea. Derrigor eman beharrekoa, Eusko Jaurlaritzak euskaltegien sare publiko zabal osatzeari uko egin eta HABEko euskaltegiak ezabatu dituzenez.

Azpinarratu beharreko borondate berria erakusten dute bi aldeek hitzarmenean. Izan ere urte askotako ezin ikusia amaitutzat emanez, AEK-k helduen euskalduntze eta alfabetatzeko euskaltegiak araupetzeko legeaz duen ahalmena aitortzen dio HABEri. Eta HABE-k, berriz AEK, 1969an herri ekimenari esker sortu zenetik gaur arte helduak euskaldundu eta alfabetatzeko lan eskerga egin eta gizarte onarpen handia lortu duen herri elkarte delat onartzen du.

HABE eta AEKren arteko hitzarmenean bada urrezko moldez hona ekarri nahi nukeen beste borondate-adierazpen bat ere, oso oinarritzkoa den arren ez baikaude horrelakorik entzuten ohituta gure artean. Hauxe diote bostgarren puntuan: desadostasunak elkarrizketa eta adostasunaren bidez gainditu nahi dira.

Espero zitekeen bezala -beti izaten baita euskaldunon arteko adostasunik nahi ez duenik- akordioa lehertu nahiz misil bat ere jaurtiki zuen mahai nazional ezagun batek, harira inola ere ez zetorren arren ertzainei AEK-n ateak itxi behar zitzaizkiela aldarrikatzera plazaratu baitzen sinadura bezperetan. Zorionez AEKren beraren erantzun koherenteak desaktibatu zuten auzia.

Gizartean bizi dugun haserre eta borroka zibilaren su-piztaileek badute zerikasia. Zabal dadila adostasun gogoia beste alor batzuetara ere, arrazoia zentzugabekeriari nagusitu dakion. Txaloa AEKri eta txaloa HABEri.



## ETA ZURI, ZAHARTZEAK KEZKATZEN AL ZAITU?

Askok esango dute debaldeko galdera dela oraingo honetan egin duguna, eta beharbada, ez zaie arrazoirik falta, urteak betetzeak ez baitu erremediorik. Ezinbestean gertatzen den zerbait izan ohi da. Adin batetara iritsi arte ospakizuna izan ohi da. Handik aurrera kezkarri bihurtzen da batzuen-

tzat, etsipen motibo beste batzuentzat, eta baikorrenak eta burutsuenak urtero urteak betetzen jarraitzea, zoriontsu sentitzeko arrazoa ere badela esango lukete. Guk dena den, jakin nahi izan dugu; geure antzera pentsatzen eta sentitzen duten jakin nahi izan dugu. Eta zu, iritzi berekoa al zara?

### Gorka Alustiza,

Zahartzeak pixka bat kezkatzen nau, baina ez gehiegi. Ez dut gaiaz gehiegi ere pentsatzen, gaztea naiz eta; hamabost urte besterik ez daukat. Bestalde, ezinbestean zahartu beharra daukagu denok, beraz...

### Antonio Azkue,



Urteak joan, urteak etorri bakearik ez dugula da kezkatzen nauen gauza. Bakea lortuz gero etorkizun hobea izango dugu. Bestalde, zahartzaroa iritsi behar duen zerbait da eta ondoren, guztiok hil behar dugu. Eskatzen dudan gauza bakarra laurogei urtera arte bi hanka gainean egotea da.

### Izaskun Goikoetxea,

Ez dit axola urteak pasatzeak. Beharbada, oraingo urte hauek ez dira oso onak, baina datozen moduan igaro behar dira. Ez dago gure esku. Hala ere, datozen bi urteak

### Asensio Ezama,



Horixe kezkatzen nauela. Nik beti edade berbera izaten jarraitu nahiko nuke. Hala ere, hirurogeita sei urte daukat eta gaztea naiz oraindik. Guztiek esaten didate gainera, gazteagoa ematen dudala. Arrazorik gabe bete ditut orain arte urteak, eta aurrerantzean ere horrela jarraitzea espero dut.

### Abellán Rodríguez

Zer esango dizut bada, urteak ez pasatzea gustatuko litzaidake. Nahi baino lehenago pasatzen dira. Iraganean pasatakoa igarota dago eta orain berriz, datorrenari egin behar diogu aurre. Bestalde, zahartzeak ez nau beldurtzen eta lana izan bitartean...

### Agustin Blanco,



Urte asko igaro badira ere, oraindik ezkongai nago. Pena ematen dit urteak azkar igarotzeak baina nire gazte denboran asko disfrutatu nuen; ezkongai egonda parranda asko egingen nituen. Orain berriro ere hogeitau urte edukitzea asko gustatuko litzaidake egin ez ditudan gauzak egin ahal izateko.

**ARANBURU**  
agencia

PROFESIONALAK GARA

Kaleberria, 26 behea  
59 08 14

winterthur

ANDOAIN

**AURRERA**  
**TABERNA**

Girorik ederrena gazteriarentzat!!  
**ZIZURKIL**



GOSARIAK - APERITIBOAK  
BILARRA

**GIRO EDERRA!!**

KALE NAGUSIA, 20 - ANDOAIN

# ARGINDAR HORNIKE- TA BERRITUKO DUTE


**Baserritarrekin bildu dira egitasmoa zehazteko**

*Orain dela hogeita zazpi urte jarritako argindar horniketa nahikoa ez dela eta, horniketa berria jarriko dute herrian. Egun 220 boltioko argindarra dute eta baserri batzuetan, askotan, 180 boltiara bakarrik iristen da. 380 boltioko argindarra jarri nahi dute eta nahiz eta lan garrantzitsuaren kostua Udalak ordaindu, baserri bakoitzeko bizilagunek euren etxe barruko lanen kostuaz arduratu beharko dute.*

Larrauldarrek nahikoa komeri izaten dituzte etxera ailegatzen zaien argindarra ahula dela eta. Tresneria guztia martxan izanez gero, argindarraren intentsitatea jaitsi egiten da eta ondorioz, kontsumoa igo eta arazoak ugaritzen dira. Orain arte inoiz ez dira argindarririk gabe gelditu baina makinak ez dute lanerako beharrezkoa duten argindarririk jasotzen eta askotan, bonbiletik ere argi ahula ematen dute.

### **Transformagailu berri bat**

Egungo argi transformagailuaz gain beste bat jarriko dute Murgil mendiaren inguruan. Transformagailu berriak ur biltegia eta inguruko baserriak hornituko ditu eta horrela, behar duten argindarra iritsiko zaie. Aurretik dagoen transformagailuak berriz, plaza eta inguruko etxeak hornituko ditu. Hori guztia azaltzeko hemezortzi baserritarrekin bildu ziren Udaleko ordezkariak hilaren ha-



**380 boltioko argindarra jarriko dute**

mabian. Lanen nondik norakoak azaltzeaz gain baserritarren nahiak eta asmoak ere jaso zituzten. Era berean, etxean argindar horniketa jartzeak hamar mila eta hamabost mila pezeta inguruko kostua duela azaldu zuten. Prezioa igo edo jaitsi egiten da etxean edota baserrian dauden makina kopuruaren arabera. Guztiak ados jarri ondoren ekingo die argindar horniketa berria jartzeari eta hilaren bukaerarako hastea espero dute.

**SAHATSA**  
BELARDENDA ETA DIETETIKA ZENTRUA  
KONSULTA NATURISTA  
Kale Nagusia, 28 - ☎ 69 40 63 - BILLABONA


ASESORIA  
GESTORIA  
ASEGURUAK

**ALDAMA - TAPIA**

**KALITATEA ETA SEGURTASUNA !!**

Kale Berria 22  
Telefona 59 44 76 - 30 01 67

**20140 ANDOAIN**



AHOLKULARITZA  
ARTEZKARITZA

**IRAOLA**

ENPHESEN AHOLKULARITZA:  
FISKALA, DIRUKONTUENA,  
JURIDIKOA, LABORALA,  
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37  
Tlf. 69 27 63  
Fax 69 27 74  
**20150 BILLABONA**

## EHIZA TXAKUR TXIKI TXAPELKETA

### Herriko 53 ehiztarik hartu zuten parte

Xabier Mendiola, Joxe Manuel Oiartzabal, Francisco Llamas eta Mikel Rekalde sailkatu dira eskualde mailako ehiza txakur txiki txapelketarako. Guztira hirurogeita hamabi pieza bota zituzten Ontza elkartekoek; ehiztari guztien artean beregeita hamairu ehizatu zituzten, horietatik zazpi txapelduak. Sailkatuek Gipuzkoa mailako txapelketarako sailkatzeko tukera izango dute.

Adarra mendiko Usalartzako inguruetan zabaldu zituzten Ontza elkarteak antolatutako txapelketan ehizatu beharreko 80 faisaiak eta 42 eperrak goizeko zazpitan, hau da ehiztari bakoitzeko hiru pieza. Ehiztariak ordubata bitartean eman zuten izena eta guztira 72 pieza bota zituzten txakur banarekin. Ehiztari batzuk kexatu ziren haize handia zegoelako eta egualdia aproposena ez zelako, baina hala ere goiz-pasa ederra ginen zuten.

Andoainen ehiza zeletasun handia dago Ontza elkarteko ehiza saileko arduraduna den Jon Etxeberriaren esanetan: 150 ederratu badaude, eta gero eta gazte gehiago hurbiltzen ari zaizkie.

Abenduan, sasoi amaituta, utzi zioten uso eta birigarroak botatzeko herriko lau postuetarako -Pagomendi, Penadi, Derepente eta Pagarte- zozketak egiteari, asteburuetan ehundaka territar bildu izan direlarik. Aurrerantzean San Juan jaietan plazer tiroketa eta uso tiroketa antolatuko dituzte. 1940 urtean ortu zen Ontza elkarte eta hasieratik ehizak izan du lehentatua bertan.



*Xabier Manterola, J. Manuel Oiartzabal, Francisco Llamas eta Mikel Rekalde txapelduak*

## J.R. ZUBIMENDIK ZUZENDURIKO MINTEGIA

### Euskaraz eta euskaldunengan pentsatu

*Joxe Ramon Zubimendi usurbildarra euskara komunikabideetara egokitzeko ahaleginetan dihardu etengabe. Beste herrietan antzeko mintegia zuzendu ondoren, Andoaingo Udaleko Euskara Zerbitzuan egin zuen proposamena euskalgintzari buruzko asmo orokorrak bideratu nahian, eta proposamena onartu ondoren, herriarekin harreman zuzena daukaten arlo ezberdinetako pertsonak ari dira hasi berria den eta ekainera bitartean izango den mintegian parte hartzen.*



Mintegian parte hartzen duten pertsonak, nor bere alorrean, berezko estiloa bila dezan du mintegiak helburutzat. Ez da berez ikastaroa Zubimendik berak esan digunez, mintegia baizik, nor bere esparruan izan duen esperientziaren ekarpena egingo baitu,

elkar aberastu asmoz. Mintegian Udal langileak, irakasleak eta kazetariak ere badira, herriarekin komunikazio zuzena daukaten pertsonak, hain zuzen ere.

Linguistika mundua gainditu eta pragmatikotasunera urratsa ematen lagundu nahi die Zubimendik partaideei, nor bere estiloa bilatzeaz gain, euskal estiloa aldarrikatuz. Hau da, euskararen batasunak emandako formalismoa eta ahozko tradizioz jasotako bizitasuna uztartu nahi ditu. Hori guztia hizkuntzaren argitasuna eta jatorria bilatu nahian.

Inprentaren aroa igarota, elektronikaren aroaren artean gaude, non ahozko komunikazioak berebiziko garrantzia baituen. "Euskaldunak horretan abantaila handiak dauzkagu -esan digu J.R. Zubimendik- ahozko tradizio aberatsa baitugu, apenas ezagutzen dugun arren". Usurbildarrak askotan aldarrikatu izan ditu Orixe, Mitxelena, Uztapide eta idatziz nahiz ahozko literaturan eta komunikazioan eredu diren hainbat eta hainbat idazle eskolatu eta eskolagabe jakintsu.

### J.R. Zubimendi

1980. urteaz geroztik kalitate kontrolaren antolatzaile, hizkuntz arduradun, bikoizketa zuzendari, gidoigile, aktore, itzultzaile, esatari, irakasle eta beste hainbat lambide egin ditu. Euskalgintzan, komunikabideetan batez ere, oinarriko bi liburu ere argitaratu ditu: "Idazkera-liburua" Pello Esnalekin batera eta "Joskera-liburua".

# fotocolor

ERREBELATUA ORDU I EAN

**Ezkontza, Jaunartze, e.a. en erreportaiak.  
Lan Industrialak**



Jose Ignacio Unanue  
Juan Bta. Erro 1 - ☎ 59 43 32  
20.140 ANDOAIN

## AUKERATU DITUZTE JURADUKO PARTAIDEAK

**Fatima Aparicio: "Nik hautatua izan nahi nuen, eta hala gertatu da"**

*Hogeita hamasei andoaindar aukeratu dituzte Gipuzkoako herri juraduetan parte hartzeko. Honez gero herrialde osoko herrietan aukeratu dituzte juraduen partaideak, eta Bizkaian egin dute dagoeneko lehenengo auzia herri juraduak parte hartu duela-rik: hilketa kasu bat hain zuzen ere.*

Andoainen behin-behingo 57 herritar aukeratu zituzten, zenbaitzuk, arrazoi ezberdinak direla medio, uko egin ondoren, gaur egun 36 lagun gelditu dira, eta dagoeneko ez daukate beren egitekoari uko egiterik. Osterantzean, 25.000-50.000 pezetako isuna ordaindu beharko lukete. Juraduen partaideei 10.000 pezeta ordainduko zaie.

Aurrerantzean 36 andoaindarrek itxaron egin beharko dute. Beste zozketa baten bitartez aukeratu dituzte auzi bakoitzeko partaideak. Urtebetez iraungo du beren konpromezuak. Orain arte komunikabideetan esandakoaren arabera, era honetako lehenengo epaiketa zein izango den erabakita dago; bi erzain hiltzeagatik akusatatu duten Mikel Otegi itsasondoarraren auzia.

### Fatima Aparicio; 27 urte; kazetaria



- Nola hartu duzu berria?

- Egia esan, tokatzea nahi nuen. Beraz, oso pozik hartu dut berria. Oso esperientzia interesgarria izan daitekeela uste dut. Hala ere urtebete gutxiegi iruditzen zaizt, eta ez dakit parte hartzeko aukerarik izango dudan.

- Jendea orokorrean ez da zure iritzikoa.

- Bai, badakit, jendeak, oro har, ez du borrelako saltsarik nahi. Beste batzuek borretarako prestatuta ez daudela diote. Baina hori ez zaizt arrazoi ona iruditzen. Azken finean, herri juraduak herritarra izan behar du.

- Ez al dizu kontzientzia arazorik eragiten?

- Ez momentuz, ez. Ez dakit epaitua aurrez aurre izan dakoan zer sentituko dudan. Bestalde, lehenengo auziak saio bereziak izango dira, eta epaiketak izango du azken hitza, gure hitza ez da erabakiorra izango.

- Itsasondoko hilketa auzia izango omen da lehenengo?

- Bai, nik jakin dudanez, aukera handiak daude izateko. Ikara pixka bat ere sortzen dit, arazoak eduki ditzakegularako. Presioa izango dugula jakina da, eta komunikabideak ere gainean izango ditugula iruditzen zaizt.

- Zer iruditzen zaizu sistema bera?

- Epaitle eta abokatu asko ados ez dauden arren, sistema ona iruditzen zaizt.

## UDALAREKIN HARREMANA EUSKARAZ

Euskararen Normalkuntzarako Batzordeak proposatuta, Gobernu batzordeak ahobatez onartu du Udalarekin harremana euskaraz eduki nahi duten herritarren zentsua eguneratzea. Martxoan ekingo dio Udalak saio berri honi.

1989. urtean halako proiektua bultzatzeko erabakia hartu zuen Euskal Herriko lehenengo Udala izan zen Andoaingoa. Geroztik erabakia ez da guztiz bete, eta egitasmoari berriro ere aurre egiteko garaia dela uste du Udalak.

Zentsua berregiteko Euskara Zerbitzuak honako puntu hauek hartuko ditu kontuan: 18 urtetik gorako herritarrei emango zaie zentsuan sartzeko aukera; 1989an zentsuan sartu ziren herritarrei ere galdetu egingo zaie orain zentsuan sartu nahi duten; zentsua udaletxeko ordenagailuetan sartuko da; bidalitako idatzien artean zailtasunagatik ulergaitzik egongo balitz, hiztegitxo bat gehituko zaie, hartzailcek ulertzeko zailtasunik izan ez dezaten.

## HAUR SAHARAURIARRAK HERRIRA

Egitasmoa guztiz zehaztuta ez badago ere, eta aukera ekonomikoak aztertzen dauden arren, Udalak uztailean Algeriako Tindouf hiriko errefuxiatuen kanpamentuko haur batzuk herrira ekartzea pentsatu du. Lehenengo eta behin harrera egiteko herriko zenbat familiek prest egongo lirartekeen jakin nahi du Udalak. Horregatik horrelako asmorik izanez gero, udaletxera jotzeko deia egin du.

Orain dela urte erdi izan ziren bi Udal ordezkari kanpamentuan eta hirikidetason hitzarmena sinatu zuten. Geroztik ere izan dituzte harremanak, eta eskaini zaie dirulaguntzarik.

## LABORDE FONDOA OSATZEKO BEKA

Udalak 900.000 pezetako beka eskainiko du Laborde lantegiak Udalarri eskainitako agiri eta argazki fondoa antolatzeko eta osatzeko. Beka jasotzeko baldintzak: 18 urte gorakoa eta andoaindarra izatea; euskarazako oinarrizko ezagutza izatea.

Bekak bederatzi hilabeteko iraupena izango du, eta lana udal artxibariaren zuzendaritzapean egingo da. Interesatuak otsailaren 2a baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak udaletxean.

**PATXINE JATETXEA**



GURE BEREZITASUNA: EUSKAL SUKALDARITZA ETA ETXeko POSTREAK  
Errementari, 1 - ☎ 69 10 25 - ASTEASU

**VAC VAC** **HOL - ATZ** 

VACSOL - WITRATAMENDUA EGURRARENTZAT

PITZADURA, PIFI eta HEZETASUNAREN AURKAKO TRATAMENDU FIDAGARRIA

Elbarrena, z/g.  
☎ 69 30 63 - 69 07 34  
ADUNA

## SANTA AGEDA BEZPERAN

**Larramendi Kultur Bazkuneko kideak kantuan irtingo dira kalera**

Aurreko urteetan bezala Larramendi Bazkuneko kideek kantuan igaroko dituzte herriko kaleak Santa Ageda egun bezperan. Liburudendetan eta eskolatan banatu ditu gainera. Santa Ageda kantak eta martiriaren historia laburra biltzen dituen esku programa. Beti bezala Kaletxikin elkartuko dira ohiko erronda egiteko. Herriar guzti-  
tici dei berezia egiten zaie bertan par har dezaten, ahal dela baserriarrez jantzita.

### Santa Ageda

Mendebaldeko lau birjin eta martiri nagusien arteko lehenegoa da kristautentzat Santa Ageda. Gazte-gaztetandik kristau, bere birjintasuna Jesukristo bere jaunari eskaintzeko promesa egin zuen, eta bere edertasuna nonbait aparta izanik, ezezko ugari eman behar izan omen zien hamaika jaunen ezkontza eskare-  
rei, besteak beste, Quinciliano Siziliako gobernadoreari. Ondorioz hamaika tortura agindu zituen neska gaztearen aurka, bularrak moztu zizkiotelarik. Mitoak dioe-  
nez ziegan zegoela ordea, San Pedrok mirari baten bitartez sendatu zizkion burlarrak.

Euskal Herrian aspaldiko ohitura da Santa Ageda bezperan koblarriak eta errondak baserri baserri eta etxez etxe kantuan ibiliz Santa Agedaren alabantzak azaldu eta etxe-koandarearen begirunezko gorai-pamenak egitea. Horrezaz gain, errondari gazteak txapela luzatu ohi dute hogerlekoea jasotzeko.

## LARRAMENDI IKASTOLAKO IKASLEAK IRABAZLE

**Lau neskek irabazi dute "Iñaki Begiristain" irrati lehiaketa**

*Larramendi ikastolakoek hiru aldiz irabazi dute "Iñaki Begiristain" eskolarteko irrati saria, aurten hamasei talderen artean. Ertainetako bigarren mailako Leticia Bertolez, Mirene Beriain, Nahia Legarra eta Nerea Tolosa laukotea aurkeztu dira Azpeitiko Antzerki Topaketan antolatutako lehiaketan eta lehen saria jaso dute.*

Aitzon jaió eta Alegin bizi izandako Iñaki Begiristain antzerkigilearen bizitzari eta lanari buruzko galderak zuzen erantzunez gainditu zuten lehenengo froga, ondoren antzerkigilearen antzerki lan baten irakurketa dramatiko egin behar izan zuten.

Maisuak berak aukeratu zituen lauak ikasgelan -beraiek aitortu ez diguten arren, buru argiak dira nonbait eta jo ta ke aritu dira luze ikasten. 100.000 pezetako saria jaso dute. Dirua Aste Santuan Parisera joateko erabiliko dute. Lana gogorra izan dela aitortu digute, baina azkenean, irabazteak merezi izan du.

Irrati kazetaritzarako eta antzezpen lanetarako zaletasunik ba ote duten galdetu diegu, baina batek ere ez

digu halako asmorik agertu. Zientzietako neskak ditugu lauak: batek al-baitari izan nahi du, osagile besteak.



## KANAL ON-EN PROGRAMAZIO BERRIA

### Bost saio berri

Ohiko albistegiaren aurretik, arratsaldeko zazpitan haur-entzako "Kanal On Txiki" saioaren jarraipena eskaintzen hasiak dira dagoeneko. La Salle-Berrozpe eta Aita Larremendi ikastolako ikasleek hartuko dute oraingo parte. Ikasleek lehiaketan galderei erantzunez hartzen dute parte eta gainera, aurrerantzean bideo didaktiko bat eskaintzeko asmoa daukate saioaren bukaeran. Saioa astelehen, astearte, ostegun eta ostiraletan emititzen da.

Albistegiaren ondoren astelehene-tako saio berria "Herria Galdezka" deitzen da. Maribi Olanok zuzenduko du eta zuzenean herriko zenbait Udal agintari eta ordezkari egingo dizkie elkarrizketak. Jendeak galderen bitartez parte hartzeko pentsatuta dago saioa.

Asteartetan ordu berean Patxi Can-

delariok zuzendutako "Mete Gol" saioa eskainiko da. Asteazkenean zehar herrian izan diren kirol ekitaldi garrantzitsuenen berri emango da bertan. Asteazkene-tan "Hoy es siempre todavía" saioa ikusteko aukera izango dute ikusleek. Herriar ezagun eta interesgarri bat aukeratu eta urteetan zehar bizi izan-dako bizipenei emango die protagonis-tak errepaso. "Kultur Haizea" deitzen da ostegunetako saioa eta herriko kul-tur taldeak izango dira bertan protago-nista.

Aipaturikoa hurrengo hiru hilabe-terako programazio berria da, dena den aurreraxeago eskaintzeko saio berriak egituratzen ari direla aurreratu digu Kanal On telebistako programazio ar-duraduna den Maribi Olanok kazetariak: besteak beste, magazin bat eta zenbait musika saio.





# BASERRI BABESTUKO TABERNA

## Lehiaketa bidez aukeratuko dute arduraduna

*Abenduaren hiruan inaguratu zuten Julian Lizardi baserri babestua eta hilaren hamaseian eginiko Udaltzak berriz, baserri babestuaren, egoitza sozialaren eta larrialditako etxebizitzaren arauak zehaztu zituen. Taberna-jatetxeko arduradunak lehiaketa bitartez aukeratuko dituzte. Martxorako martxan egotea espero dute.*

**L**ehiaketa publikoa eta irekia egingo dute taberna hartu nahi dutenentzat. Urtebeterako kontratua egingo diote taberna hartzen duenari nahiz eta Udalak beste lau urtetarako luzatu dezakeen kontratua kasu bereziren batean. Taberna hartzen duenak betekizun eta eskubi-


de batzuk izango ditu eta Udalak onartu dituenak dira hain zuzen ere. Bestalde, hirurogei urte baino gehiago duten zaharrek eta zenbait elbarrik janariak eta edariak merkeago ordainduko dituzte.

### Egitasmoa aurkeztu behar

Gipuzkoako Agiri Ofizialean berehala agertuko dira taberna hartzeko oinarriak, tabernaren funtzionamendu arauak eta hartzaileari egingo dioten kontratuaren nondik norakoak. Hala ere, taberna hartu nahi duen edonork taberna hartzeko diru proposamena eta agiri orokorrak aurkeztu beharko ditu. Taberna-jatetxeari etekin handiena ateratzen dion egitasmoa aukeratuko dute, zerbitzu egokia gestionatuz eta prezio baxuak eskainiz.

## Santa Ageda eguna

Otsailaren hiruan, arratsaldeko hiru terdjetan, Aiztondo elkarteak bilduko dira hainbat herritar. Elizmendi auzoan eta herriko kaleetan zehar ibiliko dira urtero ohi duten bezala Santa Ageda omenizeko kantuak abesten. Baserritarrez jantzita hemezortzi urtez gorako asteasutarrak izango dira guztiak. Patxi Etxeberria bertsolaria eta Tapia sointujoleak lagunduko diete eta aurten bilduko duten dirua hirugarren mundukoet laguntzeko izango da ziurrenik. Gauean herri afaria egingo dute Aiztondo elkarteak. Aipatu ere Amnistiaren Aldeko batzordeak antolatuta beste talde bat aterako dela kantari. Azken hauek bildutako dirua euskal presoentzat izango da.




## PELLO ERROTA

### HERRI IKASTETXEA

ASTEASU - Elizmendi z/g Tfno.69 22 15

- HAUR HEZKUNTZA
- LEHEN HEZKUNTZA



## Matrikula

*Otsailaren 1etik 20ra  
bitartean*

### EZAUGARRIAN:

- Euskalduna
- Inguruari lotua
- Ikasleen beharretara egokitua
- Ikaslea beste inguru eta errealitatekin harremanetan jartzen saiatzen dena

### BALIABIDEAK

*Urtez-urte hornitzen eta osatzen doazen:*

- Liburutegia
- Bideogela
- Laborategia
- Informatika gela

### ZERBITZUAK

- Jangela
- Autobusa

## I. AMODIOZKO GUTUNEN TXAPELKETA

### Joana Garmendia anoetarrak irabazi du lehen saria Eneko Gorostidi izan da herriko onena

**A**mabila euskara taldeak eta Udaleko euskara baztordeak antolatu dute amodiozko gutunen lehen lehiaketa. Hamalau urtez gorako berrogei agunek hartu dute parte. Maite Arregi euskara dinamizatzaileak esan digunez, gazteak euskaraz idazteko ekimena izan da. Epaimahaia Laskorain ikastolako hiru rakaslek, Patxi Ezkiaga idazleak eta Juan Cruz Igerabile idazle adunarrak osatu dute. Epaimahaikoek hizkuntzaren aberastasuna, metaforen erabilera eta euskararen erabilpen zuzena neurtu dute.

Partehartze handiaz gain kalitate oneko gutunak izan dira guztiak. Berezitasunik ere izan da gutunen artean: gutun batek txintxarri bat eta guzti zekarren. Hala ere, gehienak makinaz idatzitako pare bat orrialdeko gutunak izan dira.

Anoetako Joana Garmendia hamasei urteko gaztea izan da lehen saria jaso duen partaidea. Saioa Elordui-Çapatarietxe aretxabaletarrak bigarren saria jaso du "Isas-lamia" gutunarekin. Billabonako Eneko Gorostidi gaztea izan da Billabonako onenaren saria jaso duena "Maitatzen zaitudalako kantatzen dizut zuri" gutuna aurkeztuz.



Eneko Gorostidik hemezortzi urte ditu eta arkitektura ikasten ari da. Udaz gerortik Donostian bizi bada ere, Billabonatarra sentitzen da goitik behera. Gudan dagoen mutil batek bere maiteari idazten dion gutuna da Enekok egina.

- **Nola bururatu zitzaizun gutuna idaztea?**
- *Amabila taldeko lagunek lehiaketan parte hartzeko esan zidatenean idaztera animatu nintzen. Hasieran gutun bat idatzi nuen baina bigarrena izan da, gebiago landu nuen, lehiaketara bidaliakoa.*
- **Saria jasotzerik espero al zuen?**
- *Sariak zundela jakiteak idaztera animatu nintzen, baina horrelako txapelketan parte hartzen nuen lehen aldian nuen ez, ez nuen espero.*
- **Idaztea atsegin al duzu?**
- *Gustoko dut idaztea baina ez dut asko idazten, labiako dut marraztea.*
- **Eta amodio kontutan berriz, aditua al zaitugu?**
- *Ba egia esan, ez. Orain ez nago amodio kontutan oso inoia.*

### Gutun irabazlea

*XL-1-8745 presoa  
Xanet Mujika*

*1991ko irailaren 21ean*

*Ene Nadet:*

*Benetan sentitzen diat astelchenean hiri idatzi ahal ez izana, baina asteburuan arazoak izan genituan zenbait kartzelazainekin eta harrisi hauetatik at dagoen oro debekatu zaigun gaur arte, baita maitasuna bera ere. Si-  
nestezina den nola alda daitezkeen gauzak aste gutxiren barruan: kanpoan nengoenean gu bion artean ezer ez zitekeela jar iruditzen zitzaidan, hainbestere maite baikenuen elkar! Orain, ordea, aski den buruetako batek agindu bakarra ematea hi niguandik guztiz urruntzeko.*

*Askotan, sentitzen dudau higanako maitasun hau benetakoa ote den dudatan jartzen diat, ez baitut hiru begiradarekin topo egiten burua jiratzean. Baina, ure horietan hiru irribarrea zetorkidan burura, eta nola uzkaritzen ditudan begiak pentsakor hagoenean, orduan ohean zutik jarri eta lehoi barradun trikitik kanpora begiratzen diat, eta hegaz dabiltzan txoriei maite haudala oihukatzen. Txoriek, urruntzen gaituzten kilometro mordo hau igaro eta, hireganaino iritsiko direla pentsatzean lasaigo sentitzen nau, eta beren begien bitartez ikusten haudala iruditzen zaidan, ez bainaz ohartzen benetan neure barrunean ikusten haudala, bizirik baitiraun uigan.*

*Astebete barru bi urte beteko ditinagu elkarrekin hasi ginenetik, ez pentsa ahaztu dudarik. Egun horretan higan hurbil eta besarkatu egin nahi hinduket, begiak itxi eta arrosa bat eman usain dezana. Ez den, alabaina, posible izango. Murrer trinko hauen artean ez den arrosarik hazi inoiz, debeku zaigun presoi horien usain. Begiak lorearen gorriaz laztandu nahiko nitzinake, baina ezinezko zaidan, beltza baita margo bakar hemen barruan. Egun berezi horren omenez opa diezanakedan gauza bakarra oroitzapen bat den, nire bihotzean soilik dirauen landare horren oroitzapen zimeldua. Haatik, baden eskatu nahi dinadan gauza bat: irailaren 28an, gure egunez, begira izeaion ilargiari etretako argiak itzaltzean, ni ere begira egongo bainatzaion, eta ikus nagan ispilu borobil hantun istaturik, nere begi busti biek ikusiko baitaute malloen gardenean zehar.*

*Besterik ez, Nadet. Jain ezau heure burua, eta non nagoen pentsatzeak triste jartzen baldin bahu, imajina ezau tabako bila jaitzi naitzela, eta burua jiratzean hau aurkituko nauela, begiak lehor eta besoak zabalik.*

*P.D.: Hago lasai, giltzapetuko zidaten askatasuna, baina inolaz ere ez maitasuna.*

## HEZKUNTZA JARDUNALDIAK

**Eskola adineko haurren arazoak aurrizkusteko moduak azaldu dituzte**

*Hilaren hogeita bian hasi eta ostegunean amaitu dira Gizarte Ongizate eta Enplegu batzordeak antolatutako jardunaldiak. Fleming eskola publikoaren, Jesusen Bihotza ikastolaren eta Seaska haurtzandegiaren laguntza jaso dute aipaturiko batzordekoek. Guraso asko joan dira jardunaldietara, euren haurren heziketa egokia nolako beharko lukeen ezagutu asmoz.*


**G**izarte Ongizateko batzordeak familiari eskaintzen dizkion laguntzetako bat izan dira jardunaldiak. Familien egitura eta bertako partaideen estabilitatea lortu nahi dute marginazioa eta bestelako arazoak aurrizkusteko eta bitartekoak jartzeko. Horregatik, haurrak dituzten gurasoei zuzendutako hitzaldiak izan dira, gurasoek ere antolakuntzan parte hartu dutelarik. Beraz, familiako arazoak konpondu eta guraso eta Udalaren arteko harremanak sendotu nahi izan dituzte.

### Lau hitzaldi ezberdin

Astelehenean Bárbara Torres teraupeta familiarrak zerotik hiru urte bitarteko haurren lotura afektiboaz hitz egin zuen. Bigarren egunean, Ináxi Arruabarrena psikologoak prebentzioa eta arriskuzko faktoreak nola atzeman azaldu zuen: marginazioa ekiditeko neurriak azaldu zituen. Asteazkenean Karmelo Mendibil psikiatrak bostetik hamabi urte bitarteko haurren garapena azaldu zuen eta hezkuntzako profesionalen eta gurasoen arteko lankidetzaz hitz egin zuen. Azken egunean Eva Azkaratek gaztetxoek buruz hitz egin zuen: gaztetxoek eremu pertsonala, familiarra eta soziala azaldu zituen. Azpimarratzekoa da Billabonako biztanleen %25a hogeita bost urtetik beherrako gazteek osatzen dutela eta horietatik asko, oinarriko ikasketak bukatu gabe dituztela.

## ESKOLA BERRIA ARROA AUZOAN

**Urtarrilean igaro ziren aurrekolako haurrak bertara**



*Parkeko eraikuntza zaharra eta txikia gelditu zitzaizen Fleming eskolako hurrei. Aurrekolako haur guztiak batera eta hobeto egoteko egin dute Arroako eraikuntza berria. Hezkuntza sailak, Billabonako haur kopurua ikusita, ez zuen bidezkoa jotzen eraikuntza berri bat egitea. Azkenean, eraikuntzaren lanak bakarrik ordaindu ditu Hezkuntzak eta egitasmoa eta lur saila berriz, Udalak ordaindu ditu. Orain, hiriguneko lanak bukatzea gelditzen da.*

**D**uela lau urte inguruko egitasmoa da eskola berria, baina eraikuntza berria egiteko lanak orain dela urtebete hasi ziren. Ikastetxea bukatuta badago ere, inguruko hirigunea txukuntzeko lanak ez dira amaitu. Gutxian hasiko dira hirigunea berritzeko lanak.

### Haurrentzat egokitua

Bi urteko haurrentzat bi gela berezi ditu eskolak eta beste bost gela berriz, hirutik bost urte bitarteko ikasleentzat dira. Gainera, psikomotritate lantzeko gela bat eta komunak daude. Irakasleen gela eta bulegoak gain, hogeitau haur inguru sartzen diren jangela ere badago. Eraikuntzaren erdian 700m.2ko jolaslekua egin dute. Aipatzekoa da eraikuntza dagoen auzoa lasaia eta arriskurik gabekoa dela.

# BILLABONAKO EUSKALTEGIA

**Matrikula epea:** Urtarrilaren 29tik - Otsailaren 2ra  
**Ordua:** 6etatik - 8etara.

- Euskalduntze maila guztiak
- Alfabetatze ikastaroak
- EGA (Azterketa Billabonan)
- Hizkuntz eskakizunak (P.L.)
- Mintza praktika
- Eskolumeak dituzten gurasoei zuzendutako ikastaroak
- Euskaraz irakurri eta idazteko ikastaroak

**EKINTZAK**  
Asteburuetako irtenaldiak, diapositibak, filmeak, musika emanaldiak, hitzaldiak, tailerrak.

ERREBOTE PLAZA 69 25 36

# ALTEROFILIA TALDEA

**Batis Kortajarena: "Entrenatzeko lokal handiagoa behar dugu"**

**Europako txapelketa bat eta Espainiako beste bat irabazteaz gain, Euskadiko eta Gipuzkoako txapelketa ugari irabazi zituzten iaz Zizurkilgo pultsulariek. Duela lau urte hasi ziren alterofilia egiten herriko zenbait neska-mutil Batis Kortajarenaren gidaritzapean. Egun hogeita hiru neska-mutilek hartzen dute parte txapelketetan eta horietatik hamabost ia egunero joan ohi dira entrenatzera. Gogoz entrenatzen dute baina esan digutenez arazo bat badute: lokala txikia gelditu zaie.**

**D**anena Kirol Elkarteko taldea da Kortajarenak entrenatzen duen taldea. 1992an hasi zen Kortajarena herriko sei gaztetxo entrenatzen baina taldea benetan hurrengo urtean eratu zela esan digu Batisek: "P.M. Otañora etorri ginen kirolaren nondik norakoak azaltzera eta berrogei haur inguru sartu ziren taldera. Txapelketa asko irabazi genituen urte hartan".

Hamar alterofilia talde inguru daude Gipuzkoan, baina hala ere, nahikoa ezezaguna da kirola. "Jende askok gaizki hitz egiten du kirol mota honetaz baina ezjakintasunaren ondorioa da; haurrak kirol mota hau eginda berdin edota gehiago hazten direla frogatzen duten datuak dituzte" azaldu digu entrenatzaileak alterofilia egitea edozein kirol egitea bezain ona dela gaineratuz.

**Gipuzkoako talde onena azken lau urteetan**

Hamaikatik hogeita bat urte bitarteko neska-mutlak entrenatzen dute astean lau egunetan eta ordubete inguruko entrenamenduak burutzen dituzte. Bestalde, pultsularia handia eta gizona izan behar duen topikoa gezurra dela argitu digu eta entrenamenduetan gorputza, teknika eta azkartasuna lantzen dutela esan digu: "Trabajo de escalera delakoa egiten dugu. Adibidez pultsulari batek ehun eta bost kilo altxatu nahi baditu, pare bat hilabete lehenago hirurogeita hamar kilo altxatzen hasiko da, altxatze bakoitza askotan errepikatuz. Gerora altxatzen dituen kiloak ugarituko ditu eta horrela, gorputza, kilo gehiago altxatzeko landu du". Batisek esan digunez ez da ona altxatako kilo kopuru handiena ezinean altxatzen ibiltzea behin eta berriz. Gorputza eta giharreak egunez egun landu behar dire-

la esan digu entrenatzaileak, gorputza behartu gabe eta ondorioz, gorputza pisu handiak altxatzeko egokitzen da. Hala ere, pultsulariek berehalako indarra behar dutela azaldu digu Kortajarenak.

Iaz Gipuzkoako hogeita marka, Euskadiko beste hamaika errekor eta Europako bi marka lortu zituzten. Osailean hasiko dira txapelketak eta taldeko pultsulari bakoitzak hiru egingo ditu, bakoitzak bere mailakoak. "Aurten Espainiako txapelketan hartuko dute parte taldekide batzuek lehenengo aldiz" adierazi digu Batisek, eta urte oparoa izatea espero dute. Bestalde, entrenatzeko lokala oso txikia dela eta jende gehiago taldera sartzeko oztopoak dituztela esan digu.





Taldeko partaide batzuk

**TAXI  
ZIZURKIL**

- Taxi zerbitzu orokorra
- Ezindu fisikoentzat ere moldatua

Tel. 69 08 23 - Tel. mugikorra - 908 - 57 59 00

Pello Ezeiza



**ZUBi**

AUTO ESKOLA

Ernio bidea, 2 - ☎ 69 06 93 - ZIZURKIL

Zizurkil

# ARANBURU OILATEGIA

**J.M. Aranburu: "Jendeak gero eta jaramon gutxiago egiten dio kalitateari"**

*Elbarrena auzoan dagoen Aransoro baserriko Joxe Mari Aranbururekin hitz egin dugu orain dela hamar urte eraberritu zuen oilategiari buruz. Zizurkildarra Gipuzkoako oilo hazleen elkarteko partaide da gainera, eta bertako berri ere eman digu. Zalantzarik gabe, baserriko oiloen eta granjakoen artean ezberdintasunik badagoela aitortu digu. Hala ere, granjako oiloek ematen dituzten arrautzen kalitateari dago-kienez, ezberdintasunik ere ba omen dago. Dena den, jendeak gero eta gehiago erreparatzen dio, bere ustetan, diruari eta gutxiago kalitateari.*

Joxe Mariaren aitak orain dela hogeita hamar urte bazeukan oilategia Adunan, eta Joxe Mari orain dela hamar urte eraiki zuen berria Zizurkilen. Gaur egun 16.000 oilo dauzka produkzioan eta egunean mila dozena inguru biltzen ditu, hau da oilo bakoitzak 2-5 arrautza inguru jartzen ditu urtean. Urtebeteko bizi iraupena izaten dute oiloek eta ondoren Oiquina etxeari saltzen dizkio haragitarako. Burgostik eta Logroñotik ekartzen dituzte oilandak, eta bost hilabete dituztela hasten dira arrautzak erruten, pisua- ren arabera arrautzak ematen dituztelarik.

Gogorra baino gehiago oilategiko lana lotua dela esan digu Joxe Mari Aranburuk, nahiz eta gaur egun ia dena automatizatuta egon.

Pentsua eta ura automatikoki jasotzen dute oiloek. Hamasei orduko egun argia izaten dute, eta beste zortziak ilunpetan egoten dira. Arrautzak goizero jasotzen dituzte. Ondoren tamainaren arabera sailkatu ondoren -sei tamaina ezberdin dauzkate- kartoietan jarri behar izaten dituzte, eta dendetara eraman beharrekoak ontzitzoetan. Lehen hamabostean behin garbitu behar izaten zuten oilategia, gaur egun urtean behin egitearekin nahikoa izaten dute. Joxe Mari goizero Donostiako azokan saltzen ditu arrautzak, baina ohiko bezeroak inguruko dendari txikiak ditu.

## Euskal Oiloa


Euskal Oiloa izendatzen den kalitate goreneko Euskal Herriko oiloaren hazkuntza araututa dago: m2-ko oilo bakarra haz daiteke larre librean, pentsua ere berezia behar du, eta salmenta puntu jakinak izaten ditu. Joxe Mari jakin badaki Euskal Oiloa bultzatzeko inguruko hainbat baserriarrek saiok egin dituztela, baina nonbait, arrakasta handirik gabe: "Oso garesti saldu beharra dago, errentagarria izan dadin, eta gaur egun jendea ez dago prezio alturik ordaintzeko prest". Euskal Oilaskoak, bestalde, merka-

tuan harrera hobea izan du. Goierrri aldean batez ere ari dira gaur egun hazten.

**"Gutxi dira oiloa arto hutsarekin hazten dutenak"**

Baserriko oiloaren eta granjakoaren artean, zalantzarik gabe, aldea badagoela esan digu Zizurkilgoak. Hala ere, gaur egun berak dakiela, oso gutxi dira oiloak arto hutsarekin hazten dituztenak, gehienek konposatuak erabiltzen dituzte.

Gipuzkoako oilo hazleen elkar- tean hamasei lagunek osatzen dute. Bertako arauen arabera, gaur egun Gipuzkoan ez dago beste oilategi- rik eraikitzerik. Diputazioak zahar- rarak eraberritzeko baino ez du di- rulaguntzarik ematen.



Goizero lana izan obi da arrautzak bildu eta sailkatzea

## TXOTX EGIN!!

**Aurtengo sagardoa atzeratua etorri arren, uzta oparoa izan da**

*“Txotx egitea” esaten zaio jende aurrean sagardogileak kupela irekitzen duenean. Kupelak berez zulotxo bat izan ohi du zotz batez estalita eta jende aurrera ireki aurretik behin baino gehiagotan sartu-atera egiten du zotza sagardoa kupelean zer nola ontzen ari den aztertzeko. Gaur egun sagardotegiek atek irekitzen dituztenean “txotx egin dutela” esan ohi da. Sagardogileak “mojon!” esango du kupel berri bat irekitzean, eta bezeroek kupel berri bateko sagardoa dastatu ahal izango dute.*



**G**arai batean baserrian sagardo kupelak ireki zituztela jakiteko etxeko atarian lizar adar batzuk jartzen zituzten edota txalaparta jotzen zuten auzokoez jakin zezaten. Gaur egun medio azkarragoak erabiltzen dira, besteak beste urrutiago iritsi nahi delako, eta egunkariak erabiltzen dira batez ere. Dena den, sagardozeleek ongi baino hobeto dakite sasoiak orain hasi eta maiatza bitartean irauten duela eta zain egon ohi dira. Donostia inguruan San Sebastian egun bezpera izan ohi da sagardotegiak irekitzeko egun tradizionala, baina askok eta askok, Beterrin behinik behin, lehenago ere ireki dituzte kupelak.

XIX. mendera arte Euskal Herri osoan, iparraldean nahiz hegoal-

dean egiten zen baserrietan sagardoa, orain baino askoz gehiago, besteak beste sagastiak ere askoz gehiago zirelako. Gaur egun Gipuzkoara murriztu da batez ere ekoizpena eta Astigarraga inguruak dira sagardotegien bihotza. Beterrin sagardotegiek ezagutu dituzte garai oparagoak, Andoainen bertan mende hasieran hogeiren bat omen zeuden. Gaur egun Beterrin osoan sei baino ez dira gelditzen. Garaia iristen denean, larunbatean jende gaztea joan ohi da batez ere koadrilan sagardotegira. Aste egunetan afari legea egitera hurbiltzen direnak ere gero eta gehiago dira.

Sagardoa funtsean gaur egun orain dela urte batzuk bezala egiten jarraitzen da: sagarra bildu, ongi garbitu, txiki-txiki egin, tolarean

ongi zanpatu, egun pare batez bertan eduki eta kupeletara eramán. Oinarrizkoa sagarra ona izatea da, eta ahal dela, jakina, bertakoa. Sagardo onak gusto ona izan behar du; leuna izan behar du, aise edateko modukoa; txinparta pixka bat izan behar du; eta lasto kolore argiak erakutsi ohi du bere egokitasuna. Aurtengo sagardoari dagokionez atzeratu samarra etorri den arren, oso ona dela aurreratu digute. Uzta ona eta oparoa izan omen da.

### **Bertsotan**

Koadrilek bete ohi dituzte normalean sagardotegiak. Garai batekoak gaur egungoak baino kantuzale eta bertsozaleagoak zirela iruditzen zaigu tradizioak diotenaren arabera. Bestela hara hor Txirrita bertsolari hernaniarrari buruz esan ohi dena: aste osoa eman omen zuen sagardotegian sartuta, bederatzigarren egunean, emaztea kezkatuta edo aspertuta, bertara joan omen zitzaion azpiko arropa garbia eramatera. Atera kontuak garai hartako zaletasuna zenbatekoa zen! Pello Errota asteasuarra ere maiz askotxo ibiltzen omen zen sagardotegietan. Hara hor bestela bertso hauetan jasotakoa:

*“Lagunduko al-dizu  
guziyon Jabiak;  
Berak eman dizkigu  
abilidadiak.  
Asitzera dijuaz  
predikadoriak  
sekula ixtudiatzen  
ibilli gabiak.*

*Asiera eman du  
Pello Errotariyak;  
errespuesta orain  
Juan Joxe Udarregiyak.  
Batek ainbat deretxo  
daukagu biyak;  
gure kolejiyuak  
sagardotegiyak.”*

# SAGARDUA, AU MAMA!

**Ahozko tradizioa beti izan da ipuinak eta pasadizoak jasotzen iaioa, eta sagardoak euskal literaturan nolabaiteko isla izatea ere ez da batere harritzekoa.**

**G**uztiok dakigu, kondairak ala erakusten digulako, Noe izan zala lenengo ardua egin zuen gizona; bañan guchik jakingo dute oraindik, sagardua, ardua baño lenago sortutako edaria dala, ta gure aita Adan'ek egiña izan zala lenengo sagardua.

Nola sortu zan lenengo choch berria, da azaltzera nuana itz labur abetan.

Guztiok dakiten gauza da, ta ez daukagu emen zergatik erakutzi biarrik, Jainkuak debekatu ziola lendabiziko gizonari sagar zuaitzen alorta jatia, ta agindu au autsi zutelako, gure lenengo guraso Adan ta Eba paradisotik kanpora bigaldu zituztela, ta bezte naigabe askoren tantian lan egitera biartubak izan ziralta.

Egun batean zebillen Adan bere emaztearekin, buru makur, isil ta oso naigabetuta, gogoratutik galdu zuela geyago arkituko etzuben zorientasun berdin gabea; ta ara non bat batetan,

beste zuaitz mota batzuen artian ikusten duen bat sagarrarena, oso orridu-na, galanta ta ederra, iya lurra jiaz bere adar ugari ta zabalak zeukaten alorta ugariarekin.

Zuaitz ura ikusi zubenian, Adan dardarka jarri zan ikaraz erori bear zuela zirudiyela, ta Eba zori artan ikusi zubenian galdetu zion:

- ¿Zer dezu, Adan?

- ¿Ez al dezu ikusten!

- ¿Zer?

- Zuaitz madarikatu ori.

- ¡Zeñen ederra dago! ¡Oyek sagar primoriak!

- Baña emakumia, gertatu zaiguna gertatuta, zizango zenduke ausardiya alorta orri begiratzeko, eskubetan artzeko, abora eramateko?

- Zer nai dezu bada, Adan maitia, alorta orrek oso zorutzen nau. Laga zaidazu sagarcho bat jaten, bat bakarra, bat besterik ez...

Au entzun zubenian, jarri zan Adan len zegon baño aserriago, ta errabi biziyen eldu zion zuaitzari, ta bere beso indartsuen kemen guziakin astindu zuben, lagarik lur guzia sagarrez estalia. Malda bera jechi ziran jiraka jiraka sagar guziak, eta gelditu ziran azkenik ondoduan


zegon zulo aundi batian. Etzan orrenbesterekin amaitu Adan'en aserre sutsua, ta arturik inguruan aurkitu zituben arririk aundiak bota zituben gainera, apurturik, cheturik sagar guziyak.

Zenbait egun igaro ziran geroztik. Oitu bezela janarien billa zebiltzan zenar emasteak. Oso nekatuak arkitzen ziran ta geldi aldi bat egin zuten, aurreroko gertaera izan zan leku inguruan. Egun artan etzuten oraindik urik arkitu ta oso egarrituak zeuden. Alakorik batian Eba ikusi zuben Adan'ek sagarrak zanpatu zituben zulo artatik, alako likurt garbi ta urre koloreko bat chirriyuan zijuala. Lazterka joan zan ta auspezturik eran zuben gogotik likurt estitsu ura.

¿Eta zertzan?. Adanek arriakin zanpatu zituben sagarren zumua, eguzkiaren indarrarekin irakin ta biurtu zana edari berdin gabekoan. Uraxen zen ludian lenbizi egin zan sagardua: lenen lenengo choch berriya.

- Atox, Adan maitea, oju egin zion Eba'k, atoz onutz, urre urtua dirudien edari on au eratera; guk, orain arte, eran ditugun uren aldian jau mama!

Juan Oyanguren



## Andoaingo sagardotegiak 1925ean

**O**rain dela 70 urte nik eza gutu ditut herri honetan zazpi sagardotegi: Zumea aldean "Mairi", "Exekiel Enea" eta "Txitibar"; Kaletxikin "Berrozpe", "Anaztegi", "Elizondo" eta "Sansinenea". Azken hau da jende gehiena biltzen zen tokia. Garai hartan Kaletxiki bailura garrantzitsua zen eta diru asko biltzen zen bi tren geltoki zeudelako. Orduan biderik ez zegoenez, garraio guztiak trenez egiten ziren: Tren Txikia Nafarroitik eta Nortekoa Espainia guztitik. Andoain, Urnieta, Lasarte, Usurbil eta albar Andoainera biltzen ziren eta itzainak ibiltzen ziren gurdi handiekin ardo, pentsu, lasto eta gaintzeko janariak beren tokira eramaten.

Sagardotegiak eguerdian irekitzen ziren. Bazkalteko sagardo bila etortzen ziren botila edo txantxailarekin andre edo umeak. Sagardoa kupel handi batek ateratzen zen, kanila baten bitartez, basoka basoka betez. Eta aldamenean egoten zen balde handi bat urez beteta eta han basoak sartu-atera egiten ziren garbitzeko. Iluntzean biltzen ziren koadrilak eta errondak egiten ziren txandaka. Baina egiazko arrakasta larunbat eta igande arratsaldetan izaten zen. Orduan merienda egiten zen tortila bakailoarekin, gazta edo intxaurrek ogiarekin, eta nahikoa sagardoa edaten zen: baso handia txakur txiki batekin.

Joxe Eizmendi



Billabona

## XABIER BERASALUZE LETURIA PANDEROJOLEA

**Trikitixa pieza klasikoak biltzen dituen maketa ari dira prestatzen**

*Billabonatarra da jatorriz Xabier Berasaluze, "Leturia", Leturia baserri ezagunekoa.*

*Hiru urte zituela hurbildu zen musika mundura solfeoa eta pianoa ikasteko. Geroztik etengabe jarraitu du musikatresna bat eta beste lantzen. Azkenengo hamaika urtetan Joseba Tapiarekin batera ikusi dugu plazaz plaza eta jaialdietan, hala ere lehenago ere izan du bikote bat baino gehiago.*

*Egun hauetan trikitixa pieza klasikoak biltzen dituen maketa ari dira prestatzen, azkenengo urteetan rock munduan ibili eta gero, betidanik jarraitzaile izan dituzten trikitizaleei ere atsegin emateko.*



**AIURRI:** *Kontaiguzu zure hastapena?*

**LETURIA:** *Musikaria nuen aita, eta biru urtekin eraman ninduen solfeoa ikastera. Makina bat negar egin nituen orduan eskalak eta bestelakoak ikasten, lagun guztiak jolasten zeuden bitartean. Pianoa jotzen ere ikasi nuen. Joseba Tapiaren osaba den Eluterio Tapiarekin hasi nintzen geroago trikitixa ikasten. Orduan panderoa jotzen zuen jende gutxi zegoen eta soinua jotzen ikasteaz gain, panderoa jotzen ere ikasi nuen. Juan Mari Beltrán sortzaile izan zuen Txanbela taldean ere biru urtez aritu nintzen. Beltranekin ikasi nuen txalaparta eta alboka jotzen. Oso esperientzia interesgarria izan zen euskal folklorea sakonean ezagutzeko. Gainerakoan Josebarekin hasi aurretik beste bikote batzuk ere izan ditut: Anoetako Ipintza eta Zaldibiko Napre adibidez. Joseba soldaduskari zegoela Billabonako Astiasazabalekin ere jo nuen.*

**A:** *Eta Josebarekin noiz hasi zinen?*

**L:** *Hamar edo hamaika urte bada dira elkartu ginela. Bere osabare-*

*kin ikasten ari nintzela ezagutu nuen. Ongi konpondu izan gara beti. Biok oso garbi daukagu afizioz jotzen dugula, eta atsedendaldiak hartu behar direnean edota egitasmo berriei beldu behar diegunean bereiztu ere izan gara denboraldi baterako. Alde burretatik askatasuna daukagu. Horregatik uste dut irauin dugula horrenbeste denbora elkarrekin. Gainera, bakoitzak bere aldetik ere egiten ditu bestelako lanak. Zaila da bestela, pertsona batekin gauza berbera eginez luze irautea.*


**“Aspaldiko partez aurki hasiko gara zuzeneko saioak egiten”**

**A:** *Aipatuiguzu orain arte plazaratutako lanak.*

**L:** *Trikiti eta pandero soinutak biltzen zituen diskoa egin genuen lehenengo, "Tapiatarren trikitixa" diska klasikoa izan zen ondoren. "Jergasmoan" izenekoak jarraitu zion. "Dultze meneo" izan zen ondorengoa. Azkenia "Tapia eta Leturia Band" izenekoak izan da, eta orain pieza klasikoak agertzen diren maketa ari gara prestatzen. Michael Doucau-rekin batera, Aurten bertan, bala ere, rock-arekin barremana izango duen beste diska bat kaleratu nahi dugu. Horren ondoren zuzeneko saioak egiten hasiko gara, aspaldi ez ditugu egin eta nabikoa material badaukagu.*

**A:** *Folketik rock-era igaro zarete zuek?*





**L:** Bai, rock mugimendu bandia izan den urteak izan ditugu eta geuk ere musika arlo ezberdinak lantzeko gogoia izan genuen. Arlo berria zen guretzat, eta horregatik ezagutu eta sakondu egin behar genuela pentsatu genuen. Mikel Artiaga bajistaren laguntza izan genuen lehenengo. Emeak taldeko Fernando Leiza bildu zitzaigun ondoren eta Akelarreko Batiz ere izan dugu gurekin. Hasi, hasi ginen, eta inoiz mundu hori ere utziko dugula uste dut. Bestalde, ziur aski, hamar urte barru rock-a ere folk bihurtuko da. Arlo horretan aurten egin nahi dugu diska berri bat, eta ondoren, ziur aski, atsedenaldira luze samarra hartuko dugu eta bide berriak jorratzen hasiko gara.

**A: Trikitixa beste edozein musika motarekin nabastu daitekeela uste al duzu?**

**L:** Orkestra sinfoniko batean ez nuke sartuko, tresnak berak badi-tuelako bere mugak. Baina gainontzean, beti sor daitezke gauza berriak.

**A: Eta erromeriak?**

**L:** Gaur egun ez daude lehen bezainbeste, besteak beste, dantzarako zaletasun handirik ere ez dagoelako. 80eko hamarkadan egon ziren erromeriak pil-pilean berri txikitetan batez ere. Gaur egun gaz-

teak hiri handietan biltzen dira gehienbat. Gaur egun era guztietako musika motak elkartzen diren jaialdiek daukate arrakasta.

## “Trikitixa salbatuta dago”

**A: Bikote gazte asko ari dira sortzen?**

**L:** Euskal Herrian 140 eskola badaude. Gaur egun 3.000 neska-mutil inguru ari dira trikitixa ikasten eta beste bainbestek panderoa. Alde horretatik trikitixa salbatuta dagoela esan daiteke. Gure garaian alderantziz gertatzen zen: arriskuan zeuden gure doinuak. Horregatik izan zuten horren barrera ona. Dena den, egia da guztientzat ere ez dagoela lekua, baina tira...

**A: Munduan zehar ere ibiliak zarete. Zer moduz hartu zaituztete?**

**L:** Ipar Amerikan eta Europan ibili gara. Urrutien Finlandian izan gara, eta beti hartu gaituzte oso ongi. Gainera kontuan hartu behar da, nabiz eta herri bakoitzak bere folklorea duen, trikitixa mundu guztian dela ezaguna, eta jendea-ri ez zaiola arrotz egiten. Gutxi barru Kanadan izango gara. Ipar Amerikan country jotzen duten musikariek batera aritu gara, eta

primerako barrera egin digute. Dena den, trikitixak baino gehiago, panderoak eragiten du nolabait-teko txundidura jendearen artean, ez baita borren ezaguna.

**A: Beste musika tresnarik ere jotzen duzu, ezta?**

**L:** Gitarra espainola ikasi nuen txikitan, baita pianoa ere. Soinu txikia eta panderoa Ehuterio Tapiarekin ikasi nituen, Txalaparta eta alboka Juan Mari Beltranekin. Eta horrezaz gain, perkusioan ia dena landu dut gehixeago edo gutxiexago.

**A: Trikitilarien arteak zeintzuk aipatuko zenituzke?**

**L:** Asko, baina Laja eta Epelde adibidez, ezin boheak dira pieza biziak eta dantzarako egokiak egiten. Billabonako Astiasaran eta Martin Aginaldek oso pieza gozoak eta leunak egiten dituzte, eta Zumarragako Oria anaiak adibidez, kalejirak eta erromeriak egiteko primerakoak dira. Ehuterio Tapia ere ez nuke aipatu gabe utzi nahi. Hala ere, onak asko daude gure artean.

**A: Zer moduko dantzaria zara?**

**L:** Dantza baino gehiago, sasi-dantza egiten dut nik. Hala ere oso gustoko izan dut beti. Garai batean maiz joaten ginen lagunak kotxeetan berri txikitara goizaldera arteko dantza saioak egitera.

## “Ez naiz batere tabernazalea”

**A: Parrandazalea al zara?**

**L:** Guk parrandak normalean beste inork egiten ez dituen egune-tan eta lekuetan egiten ditugu. Hala ere, ez dut batere taberna eta pub-etako giroa gogoko.

**A: Bestelako zaletasunik ere izango duzu?**

**L:** Mendian ibiltzea asko gustatzen zait. Eta zorte handia izan dut gainera, mundu osoko mendi gailurretan ibili bainatiz. Urtean zehar bilabetea edo, niretzat hartzen dut mendira joateko. Horrezaz gain, tarteka-marteka basurdeak akabatzen ere aritzen naiz: ebi-za etxean tradizioa dugu. Eta abal dudanean eskiatzera joaten naiz. ■

### Andoain

# EUSKALDUNA: GIPIZKOAKO 10. KLUBIK ZAHARRENA

## "Ascensores Cenia", bi urtez futbol eta saskibaloit taldeen babesle

*1923. urtean sortu zen taldea. Geroztik futbol taldeak punta-puntako taldea izatea lortu du urte batzuetan, garai apalagoak ere ezagutu ditu, eta baita erdi purdikoak ere. Aurten bertan era guztietako egoerak ezagutu ditu helduen taldeak: erregional mailan alde handiz lehena izatea lortu zuen; handik gutxira mailaz jaitsi zen. Oraindik hamar partidu gelditzen zaizkio hala ere, denboraldia bukatzeko eta zuzendaritza batzordeko kideak, entrenatzailea eta jokalaria sinetsita daude utzitako lekua berreskura dezaketela. Ahalegin guztiak egingo dituztela aurreratu digute, behintzat.*



#### Jantzi estreinatutako berriak zituztela


**Zutik:** Asier Agirre, Angel Carrasco, Inigo Apalategi, Xabier Goikoetxea, Juan Luis Hurtado eta Igor Arrieta. **Erdian:** Igor Vitoria, J. M. Artazaminoa, Beñat Arregi, Iñaki Barreiro, Luis Brit (entrenatzailea), Pako Agirre (bigarren entrenatzailea), Julio Abrego, Aritz Zeqain eta Xabier Salvador. **Eserita:** Iker Irulegi, Javier Lavado, Carlos Aguado, Mikel Rodriguez, Eduardo Agirre, Carlos Alvarez, Sebas Azpiroz eta Martin Nieves (Delegatua)

Luis Brit entrenatzaileak oso talde egokia eratu zuen, guztien esanetan, denboraldiaren hasieran: esperientzia eta gaztetasuna uztartu zituen, eta hamaikako ezin hobea osatu. Lan egiteko gogo handia zen, eta morala ere altu zegoen. Hori guztia emaitzetan nabaritu zen eta irailean erregional mailako lehenengo lekua betetzea lortu zuten, bigarren taldeari bederatzi puntutako aldeaz gainera.

Orain dela bi hilabete ordea, gauzak okertzen hasi ziren: lesioak, gripeak eta abar. Helduek jubenil mailako jokalariekin batera jokatu behar izan zuten, eta ahalegin handia egin arren, emaitzetan aldea nabaritu egin zen eta preferente mailara jaitsi ziren. Gaur egun zorigaitzeko pasarteak gainditu direlarik, eta denboraldi amaierako hamar partidu gelditzen diren garai honetan lehenengo toki berreskuratu dutelakoan daude, hala esan digu zuzendaritzako kide den Jose Javier Zatarainek.

#### Cenia

Azkenengo lau urtetan Ontzeri merkatari elkartearen babesa izan dute. Duela bi urte elkarte desegin egin zen, eta orain arte jantzi-taldeen euren izena eramatean jarraitu baldin badute ere, babesle berria aurkitu



- kutxa fundazioa
- fundación kutxa
- gipuzkoa donostia kutxaren
- gizarte-ekintza
- obra social
- de la caja gipuzkoa san sebastián

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



**ILLUMBE, S.L.**


*Autoservicio de reparación y mantenimiento*



**LAN ELEKTRO-MEKANIKOAK**  
 Pablo Gorosabel, 48  
 ☎ 65 54 76 TOLOSA  
 Sorabilla Auzoa, 53 Poligonoa  
 ☎ 59 24 11 ANDOAIN

# AZKAIN

## MOTOAK



- MOTUL • FERODO • NZI
- CASTROL • DAINESSE • AGV
- MOTORRETARAKO
- AKZESORIOAK • NEUMATIKOAK
- MOTORE AZTERKETAK
- GARBIKETA • BILKETA
- SERBITZUA

Ubiilluts auzunea - 56. Poligonoa  
 12 zenb ☎ 59 14 13  
 ANDOAIN

behar izan dute aurten: "Ascensores Cenja" izango da bi denboralditan babestuko dituen etxe berria. Gainerakoan, jokalarien jantzia goitik-behera urdina izaten jarraitzen du, mahuka txuriak ere urdindu dituztelarik.

## Erdia bertakoak; beste erdia kanpokoak

Gaur egun helduen mailako jokalarien %50a andoaindarrak da; gainerakoak kanpokoak dira. Jubenil mailan %85a da bertakoa, eta kadete mailan guztiak dira andoaindarrak. Taldean herri bertako gazteak ezezik, kanpokoak ere hartzeko erabakiak gatazka ugari eragin zituen orain dela bi urte zuzendaritzako kide eta zale-tu eta jarraitzaileen artean. Udalak ere klubeko arduradunak gogor kritikatu zituen, jokalaria bila kanpora joaten zirela leporatuz. Zuzendaritzako kideak kluba uztera iritsi ziren, nahiz eta handik bi hilabetera berriro itzuli. Denboraldia oso aurreratuta zegoen orduan, eta derrigorrez osatu zuten taldea andoaindarrez soil-soilik. Mailaz jaitsi ziren orduan. "Gogor kritikatu gintuzten orduan -esan digu Zatarainek- baina jendeak jakin behar du goiko mailan lehia egiteko talde onak eta sendoak behar direla, eta andoaindarrez soilik osatutako talde batekin ezingo genuke aurre egin, taldea nola edo hala osatu beharra dago bertako nahiz kanpoko jokalaria onekin."

## Bazkideak eta ikusle gehiago

Gaur egun arazoak gainditu direla ematen du, eta denboraldi hasieran taldeak lortu zituen emaitza onen ondoren, bazkide eta ikusle kopurua nahikoa igo zen: "Azkenengo hiru urtetako bazkide eta sarrera kopuru handiena izaten ari gara", dio Zatarainek. Bestalde, jarraitzailerik falta ez zaiela diote, baina Donostia inguruan egotea beti omen da eragozpen eta Errealak jokatzen duenean Etxeberrieta zelaia hutsik geratzen da.

Eskolako gaztetxoaren artean dagoen mailaz ere hitz egin digu Zatarainek, eta mutikoei oso maila ona ez dutela erakusten esan digu: "Entrenatzaileek oso animoso erakusten dute, baina animoaz gain, prestakuntza ona ere behar da", gaineratu du Zatarainek.

### 75 urte

Bi urte barru Euskalduna futbol taldeak 75 urte beteko ditu. Eta dagoeneko hasiak dira ospakizunetarako ekitaldiak antolatzen. Klubaren historia jasoko duen liburua argitara emateko asmoa daukate. 1940. urteaz geroztikako klubaren akta guztiak daukate bilduta. Aurreko urteetako informazioa Udal artxibategi eta hermerotekatan biltzen ari dira.

Andoaingo artxibategian aurkitutako agiri baten arabera, taldea 1928. urtean desegin egin zen, eta benefizentziari eman zion dirua. Handik

gutxira osatu zen berriro taldea, eta 1936ko gerraldian izan zuen etenaz gain, beti jokatzen jarraitu izan duela jakin dugu. Gipuzkoako 125 futbol talde federatuen artean hamargarren zaharrena da Andoaingoa.

## "Urtebetetzerako oparirik onena, futbol zelai berria"

75 urteak beteko dituztenerako futbol zelai berria izatea litzateke zuzendaritzako kide eta zale-tuen nahirik handiena. Etxeberrieta zelaiak 1920. urte inguruan Donostiako "Esperanza" taldeak eraiki zuen. Geroztik oso zaharkituta gelditu da, eta kiroldegi inguruan kokatzea pentsatuta dagoen zelai berriaren zain daude guztiak. Bestalde, Arau Subsidiarioen onspenaren ondoren bi urte barru Zumeako zelairik gabe geratuko direla uste dute.

Bukatzeko, Zatarainek garai batean Euskalduna taldeak bizi izandako egun loriosoak gogoratu dizkigu: Langara, Esnaola, Artola anaiak, Corcuera, Lasa, Goikoetxea, Arrieta, Rebollo, Barberas, Mendiluze eta beste batzuk ere aipatu dizkigu. Euskalduna futbol taldea hala ere, bere mailan puntako taldea izaten jarraitzen du. Zatarainek aurreratu digunez, Irungo Real Unión taldea Euskaldunako jokalaria batekiko interesa agertu du. Izenik ez digu aipatu nahi izan.

**Gema**  
Loradenda  
LORATEGIEN MANTENUA  
KANPO NAHIZ  
BARRUKO LANDAREAK  
Kale Nagusia, 5 - ☎ 69 28 98 - BILLABONA

**Minikost**  
LIBURUDENDA  
PAPERDENDA  
Kale Nagusia, 20 - ☎ 59 16 57 -  
ANDOAIN

**JUAN ANTONIO URBIEJA**  
Garrasloak 16m. gura  
Urte osoan su egiten  
Bere garatan  
lastoa eta belarrak  
Kale Nagusia, 4 - 2. ASTEASU  
Tel. 69 30 92 - 69 26 76

**Zabala**  
Ordukari Bitxitegia  
Kale Nagusia, 14 - ☎ 59 37 45 - ANDOAIN  
Gudari enparantza - ☎ 33 23 41 - HERNANI

# JUBENILEN EUSKALDUNA FUTBOL TALDEA. 1954-55



Zutik ezkerretik eskuinera: K. Agirre, A. Agirrezabal, A. Langara, F. Manterola, **B. Huizi entrenatzailea**, A. Agirre, J.A. Irulegi, V. Peñalvo eta I. Larrageta.

Makurtuta ezkerretik eskuinera: J. Aranburu, R. Oiarzabal, M. Rebolledo, J. Leiza, F. Arberas, R. Mendiluze eta A. Ulanga.

**G**ipuzkoa mailan punta-puntako taldea izan zen urte horietan jubenilen Euskalduna futbol taldea. Taldea osatzen zutenen artean Errealeko jokalaririk eta entrenatzaile izandako J.A. Irulegi, Espainiako selekzioan jokatu zuen M. Rebolledo eta jubenil mailan munduko txapelduna izatera iritsi zen F. Arberas aipatu behar dira. **Jubenilen eta ondoren nagusien entrenatzaile eta urte askoz zuzendaritzako partaide izan den Bixente Huizik**

kontatu digu urte haietan Euskalduna Eibarko, Donostiako *Real Sociedad*, Irungo *Real Unión* eta *Deportes Elizondo* taldeekin batera onentsu-netakoa zela.

1961. urtean lortu zuen Euskaldunak kategorian nagusira igotzea eta hurrengo urtean bertan Gipuzkoako txapeldun bilakatu zen Atotsan Azkoitiko Anaitasuna taldearen aurka irabazi ondoren. Herritarrek itzuleran pozez zorutzen hartu zituzten musika banda eta guzti udaletxean.

**A**MAIA  
GIRRE  
ZPIAZU

**MEDIKU  
OSTEOPATA**

•LUNBAGIAK •ARTROSIK  
•GIHARRETAKO MINAK ETA ABAR...

KALE NAGUSIA, 7 - 1. ESK. ☎ 59 40 02  
20140 ANDOAIN

**S T O P**  
**LIBURUDENDA**

TESTU LIBURUAK  
AUKERA ZABALA LIBURUTAN  
(Ingelesez, frantsesez,  
italieraz...)

Agustin Leiza 27 ANDOAIN ☎ 59 16 03



**ALOTZ  
IZOZKINAK**

Kaleberria, 9 - ☎ 59 07 06  
ANDOAIN

## INMA LASARTE

### Andoaigo bonsai taldeko partaidea



- **Noiz osatu zenuten taldea?**

- *Orain dela biru urte pasatxo: 1992ko urrian. Beste ikastaro batzuetan parte hartutako herritarren ekimenez osatu genuen taldea. Hamar lagunek osatzen dugu eta astero elkartzen gara Kultur Elxean abal dugun guztiok. Dena den, eta nabiz eta gure afizio hau oso zabalduta ez dagoen, gero eta interes handiagoa nabaritzen ari gara.*

- **Zer da bonsaia?**

- *Miniaturan hazitako arbola edo zubaitza da. Teknika berezi bat erabiltzen da horretarako.*

- **Jatorriz nongoa da teknika?**

- *Txinatarra da berez. ondoren berriek zabaldu zuten teknika mundu osoan zehar.*

- **Zertan datza teknika?**

- *Natura bazten denaren antza izango duen zubaitza miniaturan lantzen saiatzen gara. Lortu-pote txikietan hazten dira arbolak oso lur gutxirekin. Egunero begiratu eta zaindu behar dira, bezetasunari eta elikagaiari arreta handia eskainiz. Uraroaren arabera modu berezian zaindu behar dira gainera. Eguneroko lana eskatzen dute. Bestalde, ez da gauza berbera hemengo zubaitz bat haziaraztea edota arbola tropikal bat.*

- **Zer zailtasun dauzka teknikak?**

- *Espezie bakoitza behar bezala haz dadin lur motak egoki nabasten jakin behar da. Hezetasun graduak ongi zaintzea ere ezinbestekoa da. Horrezaz gain, ohikoa: tresneria egokia izan behar da, eta bonsaiak hazi eta zaintzeko toki egokia, eta denbora lasai lan egiteko.*

- **Egunero izango duzue gauza berriren bat ikasteko.**

- *Bai, aritu abala ikasten da. Hasieran ikastaro batean hartu genuen parte, ondoren liburuen laguntzaz gauza gehiago ikasi genituen, eta gaur egun ere elkarren esperientziak trukaturik ikasten jarraitzen dugu.*

- **Zenbat denbora irauin dezake bonsai batek?**

- *Ez dago jakiterik: naturan bertan bezain beste denbora irauin dezake. Kontu egin ezazu bonsai batzuk belaunaldi batetik bestera igarotzen direla.*

- **Beste landareekiko zaletasuna ere izango duzue ziur aski?**

- *Jakina.*

## PERTSONAIA EZKUTUA

Pertsonaia ezkutua izeneko lehiaketaren aldi berri bati emango diogu zenbaki honetan hasiera. Pertsonaia ezkutu hau asmatzek ez dauka, gure ustez, bestelako zailtasun berezirik. Bi arrazoigatik gainera: telebistak oso ezagun bihurtu du eta ingurukoa da.



**Andoaingo Zirauna kirol etxeak** eskaini digu oraingo honetan saria, eta ez nolunahikoa gainera: **Euskadiko futbol selekzioko prakak eta kamiseta**. Tira bada, anima zaizte futbolzaleak zeratenak eta ez zeratenak, etxerako ez bada, arropa nori oparitu izango duzue eta!

Honako helbidera bidali itzazue zuen gutunak:

**AIURRI aldizkaria, Dr. Huizi 15. behe-eskuina. 20.140 Andoain.**



KIROL JANTZIAK

# Zirauna

Ama Kandida etorbidea, 6 Posta kutxatila 110 - ☎59 44 47

**ANDOAIN**

## IKASTAROAK

## BILLABONA

**Kultur Etxean ekaina bitartean.** Izena emateko epea: otsaileko lehenengo astea bitartean.

**Antzerkia:** helduentzat, astean 2 egun.

**Argazkilaritza:** helduentzat, astean 2 egun.

**Zurlanketa:** helduentzat, astean 2 egun.

**Koadernaketa:** helduentzat.

**Plastika:** 5-10 urteko haurrentzat, astean 1 egun.

**Euskaltegia. Matrikula epea:** urtarrilak 29-otsailak 2, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara, liburutegi gainean. ☎ 69 25 36

## ANTZERKIA

## ANDOAIN

**Urtarrilak 27: Tanttakaren "Umekeriak"** antzezlana, 20.00etan, La Salleko antzerki aretoan.

**Otsailak 9: Bederen 1 taldeak "Zu(t)gabe"** antzezlana eskainiko du La Salleko antzerki aretoan, 20.00etan.

## IKUSENTZUNEZKOAK

## ADUNA

**Urtarrilak 26: "Un niño en Paris"** gaztetxoentzako filmea, 19.30etan Kultur aretoan.

## LARRAUL

**Otsailak 2: Karlos Irazuren Boliviako diapositiba** emanaldia Kultur aretoan, 21.00etan.

## BESTE

## BILLABONA

**Otsailak 3: Herri olinpiadak:** frontenisa zartagia erabiliz herriko plazan.

## ZIZURKIL

**Urtarrilak 29: Santa Ageda bezperan kantuan** egiteko herriko kultur taldeek eta ikastetxeek entseitua egingo dute Kultur Etxean 20.00etan.

## MUSKIL ELKARTEA

**Otsailak 10-11/24-25 eskiatzera joateko aukera zortzi urtetik gorako edonorentzat:** iraupen eskia eta alpikoa eskia. Prezioa: 6.900-13.100 pezeta.

## A.H.T

## AURKAKO ASTEA:

**Urtarrilak 28:** Mendi martxa: 9.30etan irteera Billabonako tren geltokitik. AHTk **Zizurkil, Asteasu, Anoeta, Hernialde eta Tolosako udalerrietan eragingo lukeen hondamena aztertuko da.** Bazkaria 14.30etan Tolosako Oargi elkarrean. 18.30etan kalejira.

## HITZALDIAK

## ANDOAIN

**Urtarrilak 26:** Andoaingo EAJ-PNVk antolatutako **"Politika plaza-ra"** hitzaldi saioari jarraipena emanez, **Juan Mari Ollora** izango da Kultur Etxean: **"Bake prozesuak eta Euskal Herria"**.

## Asteasuko Alkatea erantzuten

Joan den urtarrilaren 12ko 28. AILURRI aldizkariko atal honetan argitaratu zen idatziaren aurrean, Maria Begoña Gil Etxabarriak sinaturikoa, bertan azaltzen ziren galderei erantzun beharrean nago, azkenaldi honetan ohizkoak bihurtu diren esamesei eta akas dun informazioei aurre egiteko. Bertako galdetak erantzun aurretik, irakurleei nire burua aurkeztu nahi nieke. Idatzi hau sinatzen duen hau, joan zen ekainaren 17az geroztik da Asteasuko Alkate, eta EA taldeko partaidea da, eta zu, Maria Begoña Gil Etxabarria, Julen Unanue oraingo HBko zinegotziaren bikotea zara. Gainera, gizon hau joan zen legealdian Hirigintza eta Obrak, Euskara eta Kultura, Hezkuntza eta Enplegua eta Gizarte Ongizate sailtetako batzordeburu zen; zu zeu ere, HBk zuzentzen zuen aurreko Korporazioaren ihardunean pertsona garrantzitsua zinelarik ("aholkulari politikoa"). Aurkezpen hori egin ondoren, zuk dituzun zalantzak banan-banan argitzen saiatuko naiz, lau puntutan laburbildu daitezkeelarik:

**1- Eraikuntzaren inaugurazioa eta irekitzea:** Etxea joan zen abenduaren 3an inauguratu zen ofizialki. Eraikuntza itxita egotearen arrazoiak berogailu sistemaren akats bat da (dirudienez 1994ko azaroan egiaztatu zen ondo zebilela, orduan Udala HBk zuzentzen zuelarik). Beste arrazoi bat, propiano gasaren homidurarena da, eraikuntza martxan jartzeko beharrezkoa dena, neguan baikaude. Urtarrila-otsailean amaituko dituzte lanak, oraingo Udalak enpresa instalatzailearekin sinatu duen kontratuaren arabera. Aurreko korporazioak sinatutako akordioaren arabera lanak abenduan amaituko ziren.

## ZINEMA

## Billabonako Gurea aretoan

Urtarrilak 26-27-28-29  
**"Puentes de Madison"**

Otsailak 2-3-4-5  
**"El día de la bestia"**

Otsailak 9-10-11-12  
**"Two much"**

Otsailak 16-17-18-19  
**"La red"**

Otsailak 23-24-25-26  
**"Homicidio en primer grado"**

**2- Udala zuzentzen duten politikoek egitasmoa gauzatuko ote duten:** Gure asmoa Baserri Babestu eta Zentru Sozial gisa ihardutea da, eta urtarrila/otsailean jarriko da martxan, bertan gasa sartzen amaitu orduko.

**3- Alkatearen kalitatezko botoa:** Egia da eraikuntzaren izena jartzeko erabakia joan zen azaroaren 21ean eginitako Ohizko Udala Batzanean hartu zela, eta horretarako Alkateak boto berdinketak hausteko legeak ematen dion kalitatezko botoa erabili zuela. Korporazioa EAko 5 zinegotzik eta HBko 4k osatzen dute. Bilerak horretara, lan arazoak zirela eta, proposaturiko izenarekin ados zegoen EAko zinegotzi batek ezin izan zuen etorri, eta egoerari intzenbide bat ematea erabaki zen. Dena den, azpimarratu nahi nuke HBko taldeak azkenean erabaki zen izena ere bazuela bere proposamenen artean, hau da, Julian Lizardi.

**4- Aurrera egin dezan interesatzen zaigun edo ez:** Noski interesatzen zaigula Baserri Babestuak eta Zentru Sozialak aurrera egin dezan, baita herriak oro har aurrera egin dezan. Horregatik, ahal den heinean, orain dela sei urtetik hona datozen gaietara erantzun bat ematen ari gara.

Azkenik esan, Alkate honek jendea hartzeko orduetegi bat linkatu duela, guztioi irekia, ahalik eta zerbitzu hoberekin eskaintzeko nahiarekin, eta herri honetako bizilagunak izanik, zuk zeuk ere zerbitzu hori erabili zenezakeen zalantza horiek guztiak argitzeko.

Begirunez, zure alkateak

**Iñaki Amenabar**  
Asteasuko Alkatea

# FLEMING IKASTETXEA

Arratzain z.g. ☎ 69 14 13 VILLABONA - ARROA ☎ 69 35 12

## EUSKALDUNA, DENONA eta DENONTZAT



- Haur Hezkuntzako eskola berria (2 - 6urte)
- Lehen Hezkuntza Arratzainen (6 - 12urte)
- Autobusa, jangela, psikomotrizitatea, informatika, baratza,...



**AURREMATRIKULA:**

**Otsailak 1 - 15**

**IKASTETXEAK:**

Dr. Fleming, Pello Errota, Alkiza  
Zizurkil, P. M. Otaño, Aduna



**ERNIOBEHEKO D. B. H.**

(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)

**FLEMING ikastetxean**

✓ Autobusa eta jantoki zerbitzua izango da



Zumalikardi baserria  
ANOETAN  
☎ 65 26 22

Sagardotegia  
ASTEASUN  
☎ 69 02 83

**Larunbat eta igandean  
bazkalorduan zabalik**




Sorabilla - Adunako errepeidea

☎ 69 30 94

150 pertsonentzako  
lekua (aparkalekua).  
Urtarrilaren 19an ireki  
dugu.

Sagardo garaian  
sagardotegi gisa  
irekitzen dugu eta  
urtean zehar Jatetxe  
moduan.

Berezitasunak:  
Gaztatarta eta etxean  
egindako menbrilloa



SAGARDOTEGIA

**SATXOTA**

Elbarrena auzoa  
(Marie Brizarden parean)  
ZIZURKIL ☎ 69 02 64



150 pertsonentzako lekua (aparkalekua) 1986.urtean ireki genuen. Sagardoa guk egiten dugu. Sagardo garaia amaitzen denean erretegi gisa erabiltzen dugu (TOKI EDER erretegia). Berezitasunak:

- Makailo frijitua
- Txuletak
- Antxumea burduntzian